

Laburpena eta argibideak:

- Aurkeztu beharreko agiriak, Hiri Ekologia eta Mugikortasuneko Alorrera zuzendutako eskabidearekin batera:
 1. Eskatzailearen NANaren edo horren baliokidea den agiriaren fotokopia.
 2. Eskabidea, I. eranskineko ereduarekin bat.
 3. Erantzukizuneko aitortpena, II. eranskineko ereduarekin bat, non adieraziko baita baldintza-agirian ezarritako baldintzak betetzen direla eta eskatzailearen etxebizitza dagoen eraikinean arkitektura-oztopoak daudela.
 4. Halakorik behar izanez gero, guraso edo legezko tutorearen baimena **14 urtetik gorako adingabe**arendako, III.eranskineko ereduarekin bat, eta haren guraso edo legezko tutorearen NANaren edo baliokide den agiriaren fotokopia.
 5. Hala behar izanez gero, eskatzaileak kargura duen 14 urtetik beherako adingabe batendako egiten badu eskabidea, adingabearen NANaren edo familia-liburuaren fotokopia.
 6. Tarifa murrizturen bateko onuradun izateko, eskabidearekin batera aurkeztu beharko da azken Errenta-aitorpenaren fotokopia edo Errenta Bermatua jasotzen dela egiaztatzen duen agiriarena.

- **I. eranskina:**
 1. Eranskin berean eskatu ahalko da erabilera-baimena familia edo elkarbizitza-unitate bereko hainbat kideren izenean, bertan adierazita helduak diren, 14 eta 17 bitartekoak edo 14 urtetik beherakoak.
 2. Tarifak: ordaintzeko moduei buruzko argibidea.
 - Ordaintzeko era: urtean ordainketa bakarra egingo da, aparkatzeko tokiaren titular izaera eduki bitartean.

TARIFA / MODALITATEA	Urtekoa (€)	
	Helduak	Haurrak
Arrunta	60	30
OAEAP	45	22.5
Errenta bermatua	30	15

3. Errentak-mailak: Errenta-egoeretakotako bigarren aukerari buruzko argibidea:
 - Aurreko urteko aitortpenaren likidazio-oinarria kontsultatu beharko da jakiteko honako suposizio honetan sartzen den edo ez: *“Familia- edo elkarbizitza-unitate bat osatuta haien urteko diru-sarrerak –azken errenta-aitortpena noiz egin eta ekitaldi horri dagozkionak– eta unitatearen kide kopurua aintzat hartuta baldintza-agiriaren 3. puntuko taularen barruan sartzen diren eskatzaileak”*. Aitorpenak ezingo ditu gainditu taulan zehaztutako mugak (gehieneko diru-sarrerak), betiere familia- edo elkarbizitza-unitatea osatzen duten kide kopurua aintzat hartuta.

Familia- edo bizikidetzta-unitatea	Gehieneko diru-sarrerak urtean, OAEAParen arabera	Gehieneko diru-sarrerak urtean, OAEAParen arabera
Kide bat	OAEAP halako 2.20	16.543,10€
2 kide	OAEAP halako 2.50	18.798,98 €
3 kide	OAEAP halako 2.75	20.678,87 €
4 kide	OAEAP halako 3.00	22.558,77 €
5 kide edo gehiago	OAEAP halako 3.25	24.438,67 €

* aplikatu beharreko urteko Ondore Anitzeko Errenta Adierazle Publikoa (OAEAP) 2017koa da: 7519.59 €

Adibidea: halako suposizioaren barruan sartu ahal izateko, 2 kideko familia-unitate baten diru-sarrera gordinek (likidazio oinarria) ezingo dute 18798,98 € baino gehiago jo.

- **III. eranskina:** Eskatzailea **14 urtetik gorako adingabea** bada soilik bete beharko da.
- Baremazioa hasiera batean baldintza-agirian ezarritako irizpideekin bat egingo da.